



*Bizkaiko Ahaldu Nagusia
El Diputado General de Bizkaia*

Bizkaiko Ahaldu Nagusiaren agerraldia

San Inazio eguna 2020

Bizkairako egun berezi bat ospatzen dugu gaur, oso egun garrantzitsua foru aldundi honentzat; elkar ikusi gabe, elkarrekin egon gabe, elkarrekin tarte atsegin bat partekatu gabe. Ezohiko San Inazio egun bat ospatzen dugu, baina ziur nago egoki jokatzeko ari garela. Harrerarik ez egitea ekintza arduratsu bat da, betebeharrak. Ez da hori egin nahi genuena, baina bai egin beharko genukeena. Mezu hau partekatzea harrera bizirik mantentzeko modu bat da; izan ere, beltzaren eta zuriaren artean beti dago gris-eskala bat, eta ohitura onak mantendu egin behar dira, inguruabarretara egokituz bada ere.

Lehenik eta behin, gure elkartasuna pandemia honen ondorioz hil edo gaixotu diren pertsonetarako. Ez dago hitzik tragedia hori leunduko duenik. Denon lehenengo helburu nagusia da tragedia hau ez dadila areagotu. Mesedez, ardura. Jokoa dago garrantzitsua: osasuna. Ardura denon ekintzen arteko batura da. Arduratsuak bagara, dena ondo joango da; bestela, okerrera egingo du. Birus honekin ezin da jolastu, argi erakutsi baitigu zenbat min egin diezaguken eta nola geldi dezakeen mundua. Beraz, mesedez, ardura. Gure esku dagoena egingo dugu; osasun-arauak jarraituko ditugu; arduratsuak izango gara. Birusak edozein zirrikitu baliatzen duela erakutsi digu. Gauzak zaildu behar dizkiogu, denbora irabazi behar dugu txertoa iritsi arte, eta hori egiteko modu bakarra norberaren ardura da. Eredugarriak izateko eskatzen dizuet; arduratsuak izan behar gara, ekintza eta erabaki bakoitza delako garrantzitsua eta pertsona askori eragin diezaike, ondorio dramatikoekin.

Momentu zailak dira, ziurgabetasun handia dago, eta egoera honek denon bertsiorik onena eskatzen digu. Bada, erakuts dezagun. Lehen bezala bizi nahi dugu, lehen egiten genituen gauza berak egitea, lehen bezala ondo pasatzea... Orain ez da posible. Ez da posible orain dela urtebete bizi ginen moduan bizitzea eta onartu egin behar dugu. Egokitu egin behar gara: arduratsuak bagara tarteko egoera bat bizi ahalko dugu, bestela, atzera egiteko arriskua daukagu. Are gehiago, nor bere etxera itzultzeko arriskua daukagu eta hori bai izango litzateke ondorio oso gogorrak izango litzuzkeen kolpe bat. Ez dugu ezer baztertu behar. Gure esku dago, beraz, izan gaitzen arduratsu: maskararekin, distantzia sozialarekin, edukierekin, higiene-neurriekin. Osasuna dago jokoan. Osasuna badago, dena da posible; osasunik gabe, ezer ez da posible.

Osasuna behar dugu lanean jarraitzeko. Orain inoiz baino gehiago. BPGren jaitsierari eta enplegu-suntsiketari buruzko datuek dena diote, baina uste dut oraindik ez dagoela dena esanda. Atzera



*Bizkaiko Ahaldu Nagusia
El Diputado General de Bizkaia*

egiten ez badugu, irailean egindako kaltearen argazki osoa izango dugu. Orain irtenbideak bilatu behar dira, datozen belaunaldiei utziko diegun Bizkaia hobeto egiten jarraitu behar dugu.

Proiektuak martxan ditugu. Krisi honek Bizkaia behar dituen proiektuak direla erakutsi du. Aldundi honen proiektuak krisi ekonomikorako txerto on bat direla berretsi du. Susperraldi-programaren Europako jarraibideei jarraitzen dieten proiektuak dira; enplegua eta jarduera ekonomikoa, aukera-berdintasuna, osasuna, bizi-kalitatea eta jasangarritasuna hobetzen dituztenak. Ez dira hitzak; proiektuak dira. Digitalizazio-proiektuak, hala nola, banda zabala Bizkaia osora zabaltzea, tokiko merkataritza digitalizatzea, gaitasun digitalei buruzko prestakuntza ematea Bizkaiko 42. Eskolarekin. Eraldaketa ekonomikoan laguntzen duten proiektuak, energia-, ingurumen- eta osasun-trantsizioaren bidez, hala nola, Bizkaia dorrea eta ekintzailtza, hidrogenozko *hub*-a, sare adimendunen zentroa edo Nagusi Intelligence Center. Azpiegituretan egindako inbertsio produktiboa daukagu, eta lurralderako mugikortasun berria, Bermeoko portuaren berroneratzea... Enplegua, jarduera ekonomikoa, osasuna, berdintasuna, bizi-kalitatea, iraunkortasuna. Bizkaia hobeto bat.

Birusak ere arriskuan jarri ditu proiektu horiek guztiak eta Bizkaia hobeto hori. Arrisku horren aurrean, beste krisi batzuetatik aterata gaituzten indar eta konbentzimendu berarekin lan egiten jarraitzea besterik ez da geratzen, jakinda ez dela erraza izango, sufritzen ari garela eta sufrituko dugula. Baina birusak ezin du eraldaketa gelditu Bizkaian eta ez du geldituko. Bizkaiko Foru Aldundi honek dena emango du. Bizkaiko Susperraldirako Lurralde Plan batean lanean dihardugu eta Eusko Jaurlaritzarekin eta gainerako erakundeekin koordinatuta lan egiten dugu, batu nahi duenaren lankidetzara zintzoa eskatzen duen Susperraldirako Euskal Plan batean. Gizarteak eman digun erantzukizunetik eta legitimitatetik abiatuta egiten dugu hori, herrialde honetan programa bat eta hainbat proiektu babesten baititu, susperraldirako eta oparotasun inklusibo handiagorako; ez 180 graduko bat-bateko iraultzetarako edo lema-aldaketetarako. Susperraldi-estrategia bizkortu eta bultzatu behar dugu lehenbailehen.

Laguntza beharko dugu, eta apaltasunez aitortzen dut hori. Europaren bultzada bat beharko dugu. Bultzada bat besterik ez dut eskatzen, Europak lagun diezagula abiadura hartzen, lagun diezagula abiarazitako erreformak osatzen, lagun diezagula Bizkaia suspertzen. Kontrol guztiak errespetatuz, eurorik xahutu gabe, euro bakoitzaren balioaz oso kontziente garelako eta badakigulako funts europar hauek ahalegin komunaren ondorio direla. Eta ziur gaude proiektu horiek Europa ere hobetzen dutela, berreraikuntzarako ezarri dituen lehentasunak bultzatzen dituztelako: enplegua, digitalizazioa, iraunkortasuna, osasuna eta aukera-berdintasuna.

la itxita daukagu Bizkaiko Susperraldirako Lurralde Plana, Susperraldirako Euskal Planaren parte izango dena, eta Europako agintariei helaraziko dieguna; Erkidegoko agintariei erakusteko proiektu horiek laguntza merezi dutela, bultzada hori merezi dutela. Ez dugu ezer asmatuko, lana



*Bizkaiko Ahaldu Nagusia
El Diputado General de Bizkaia*

dagoeneko egina dugulako eta proiektuak martxan ditugulako. Mesedez, lagundu horiek bizirik mantentzen. Bizkaia, Euskadiko, Estatuko eta Europako lurralde eragile bat da. Mundu-mailako kate produktibo askoren parte gara. Motor ekonomiko bat gara eta laguntza behar dugu motor hori martxan mantentzeko, denon onerako. Gure konpromisoa, horren truke, Bizkaia, Euskadi eta Europa hobe bat eraikitzen laguntzea da, kontrol eta baldintza guztiak onartuz. Eta hitz ematen dugu gure esku dagoen guztia egingo dugula, ahalik eta ondoen.

Salbuespenezko egoeretan, albuespenezko neurriak. Zerbaitek justifikatzen badu administrazio bat, gobernu bat zorpetzea, horrelako egoerei aurre egiteko da. Jardueraren eta enpleguaren suntsipenaren ondorioz, inoiz baino aparteko funts gehiago behar dira susperraldiari laguntzeko. Europak aldatu egin du estrategia aurreko krisiari dagokionez, eta gaizki ulerturiko herstura batetik susperraldi-proiektuak bultzatzeko likidezia injeztatzerara igaro da. Orain, Estatuak zuzentarau hori aitortu eta helarazi behar du.

Bizkaiko Foru Aldundiak defizit- eta zor-ahalmen handiagoa eskatu du eta Ekonomia Itunaren Batzorde Mistoak, modu bilateralean, euskal erakunde guztientzako defizit- eta zor-ahalmen handiagoa onartu dezala eskatzen dugu. Guztientzako. Gure gizarte- eta ekonomia-sareak Administrazioaren inplikazioa eskatzen du krisi honetatik irteteko. Administrazioak ezin du susperraldi- eta eraldaketa-proiektuak erortzen utzi. Ezin diogu uko egin etorkizun hobe bati. Koherentzia besterik ez dugu eskatzen: Espainiako Estatuan bost ogasun daude, estatu-mailakoa eta euskal ogasunak: Bizkaia, Gipuzkoa, Araba eta Nafarroa. Era berean, Espainiako Gobernuari diru-sarrerak erori zaizkio, eta euskal ogasunetan ere gure diru-sarrerak nabarmen murriztu dira. Jakinarazitako baliabideen beherakada ezagun eta objektibo horren aurrean, Bizkaiko Foru Aldundiak defizit- eta zor-ahalmen handiagoa eskatzen du. Krisi honetatik irteten laguntzeko, susperraldian lagunduko duten proiektuak sustatzeko; etenik izan ez dezan; gelditzen bada, urteak beharko baititugu berriro martxan jartzeko.

Momentu hau albuespenezkoa da, diru-sarrerari zein gastuari dagokienez. Argi izan behar dugu zer den lehentasunezkoa eta zer ez. Lehentasunezkoa da kalitatezko zerbitzu publiko eraginkorrek mantentzea eta etorkizuneko belaunaldiei Bizkaia hobe bat uzteko lan egiten jarraitzea. Gainerakoak koiuntura hobe bat itxaron beharko du, iritsiko dena, eta hori ere ozen eta argi esan behar da. Ez nabil murrizketez hitz egiten, lehentasunez eta susperraldira begira eskuragarri dauden baliabide guztiak bideratzeaz baizik. Ulertzen ez duenak ulertu egin beharko du, lehentasuna duena, premiazkoa, orain garrantzitsuena dena, osasuna eta susperraldia dira.

Konfiantza daukat zuengan, gazte eta nagusiengan, gure langileengan, eta gure enpresariengan. Denengan. Konfiantza osoa daukat Bizkaiarengan eta badakit elkarrekin dena egiteko gai garela. Berriro diot: elkarrekin. Elkarrekin, gure buruari proposatzen diogun guztia lortu dezakegu. Eta elkarrekin lortuko dugu bakarrik egoera honi aurre egitea. Ziurgabetasunez betetako sekulako



Bizkaiko Ahaldu Nagusia
El Diputado General de Bizkaia

erronka daukagu: normaltasuna berreskuratzea. Ez dakigu zer gertatuko den hilabete edo bi hilabete barru; horrela onartu behar dugu. Beraz, ardura eta zuhurtzia asko. Dakigun gauza bakarra da gure osasuna berreskuratu nahi dugula, lehen bizi ginen bezala bizi nahi dugula, gure bizi-kalitatea berreskuratu nahi dugula, gure jarduera ekonomikoa, gure enplegu-hobekuntza. Eta datozen belaunaldiei Bizkaia hobe bat uzteko lanean jarraitu nahi dugula. Elkarrekin, osasunarekin, lan asko eginez eta laguntza pixka batekin, lortuko dugu. Bizkaia aurrera!



*Bizkaiko Ahaldu Nagusia
El Diputado General de Bizkaia*

Intervención del Diputado General de Bizkaia

San Ignacio 2020

Hoy celebramos una fecha señalada para Bizkaia, un día muy importante para esta Diputación Foral, sin vernos, sin estar juntos, sin poder compartir un buen rato. Conmemoramos un día de San Ignacio atípico, pero tengo la certeza de que hacemos lo correcto. No celebrar la recepción es un acto de responsabilidad, una obligación. No es lo que queríamos hacer, pero sí es lo que debíamos hacer. Compartir este mensaje es una forma de mantener viva la recepción, porque entre el negro y el blanco siempre hay una escala de grises, y las buenas costumbres hay que mantenerlas, aunque sea adaptándolas a las circunstancias.

Lo primero, nuestra solidaridad con todas las personas fallecidas o afectadas por esta pandemia. No hay palabras que reconforten esta tragedia. Nuestro primer y principal objetivo común debe ser que esta tragedia no sea mayor. Por favor, responsabilidad. Está en juego lo más importante: la salud. La responsabilidad es la suma de los actos de todas y todos. Si somos responsables, nos irá bien; si no lo somos, nos irá mal. Con este virus no se juega, porque nos ha demostrado cuánto dolor puede generar y cómo puede parar el mundo. Así que, por favor, responsabilidad. Vamos a hacer lo que está en nuestra mano; vamos a seguir las normas sanitarias; vamos a ser responsables. El virus ha demostrado que aprovecha cualquier rendija. Tenemos que ponérselo difícil, tenemos que ganar tiempo hasta que llegue la vacuna, y la única forma de hacerlo es la responsabilidad personal. Os pido que demos ejemplo, que seamos responsables, porque cada acto y cada decisión cuenta y puede afectar a muchísimas personas con consecuencias dramáticas.

Atravesamos un momento muy complicado, con mucha incertidumbre, y este momento requiere la mejor versión de todas y todos. Vamos a darla. Queremos vivir como antes, hacer las mismas cosas que antes, divertirnos como antes... Ahora no es posible. Vivir como vivíamos hace un año hoy no es posible y hay que asumirlo. Nos tenemos que adaptar: si somos responsables podremos lograr un término medio; si no lo somos corremos el riesgo de retroceder. Incluso de volver a nuestras casas, y ese sí que sería un golpe de consecuencias durísimas. No podemos ni debemos descartar nada. Depende de nuestra responsabilidad, así que seamos responsables: con la mascarilla, con la distancia social, con los aforos, con las medidas de higiene. Está en juego la salud. Si hay salud, todo es posible; sin salud, nada es posible.

Necesitamos salud para seguir trabajando. Ahora más que nunca. Los datos de caída del PIB y destrucción de empleo lo dicen todo, aunque me temo que todavía no está todo dicho. Si no retrocedemos más, en setiembre tendremos la foto completa del daño producido. Ahora toca



Bizkaiko Ahaldu Nagusia
El Diputado General de Bizkaia

buscar soluciones, toca seguir haciendo esa Bizkaia mejor que debemos dejar a las próximas generaciones.

Tenemos los proyectos en marcha. Esta crisis ha demostrado que son los proyectos que Bizkaia necesita. Ha ratificado que los proyectos de esta Diputación son una buena vacuna para la crisis económica. Son proyectos que siguen las directrices europeas del programa de recuperación, que impulsan el empleo y la actividad económica, la igualdad de oportunidades, que mejoran la salud, la calidad de vida y la sostenibilidad. No son palabras; son proyectos. Proyectos de digitalización, como la extensión de la banda ancha a toda Bizkaia, la digitalización del comercio local, la formación en capacidades digitales con Escuela 42 Bizkaia. Proyectos que ayudan en la transformación económica, mediante la transición energética, medioambiental y la salud, como la torre Bizkaia y el emprendimiento, el *hub* de hidrógeno, el centro de redes inteligentes o el Nagusi Intelligence Center. Tenemos la inversión productiva en infraestructuras, la nueva movilidad para el territorio, la regeneración del puerto de Bermeo... Empleo, actividad económica, salud, igualdad, calidad de vida, sostenibilidad. Una Bizkaia mejor.

El virus también ha puesto en riesgo todos estos proyectos y esa Bizkaia mejor. Ante ese riesgo solo queda seguir trabajando con la misma fuerza y convencimiento que nos han sacado de otras crisis, sabiendo que no será fácil, que estamos sufriendo y vamos a sufrir. Pero el virus no puede parar la transformación de Bizkaia y no la va a parar. Esta Diputación Foral de Bizkaia va a darlo todo. Trabajamos en un Plan Territorial de Recuperación de Bizkaia y trabajamos coordinados con el Gobierno Vasco y el resto de instituciones en un Plan Vasco de Recuperación que exige la colaboración sincera de quien quiera sumar. Lo hacemos desde la responsabilidad y la legitimidad que nos ha confiado la sociedad, que avala de forma mayoritaria un programa y unos proyectos para la recuperación y para una mayor prosperidad inclusiva en este país, no para revoluciones o cambios de timón bruscos de 180 grados. Debemos acelerar e impulsar la estrategia de recuperación cuanto antes.

Vamos a necesitar ayuda, y lo reconozco con humildad. Vamos a necesitar un empujón de Europa. Solo pido un empujón, que Europa nos ayude a coger velocidad, que nos ayude a completar las reformas iniciadas, que nos ayude en la reactivación de Bizkaia. Respetando todos los controles, sin malgastar un euro, porque somos muy conscientes del valor de cada euro y de que estos fondos europeos salen del esfuerzo común. Y convencidos de que estos proyectos también mejoran Europa, porque impulsan las prioridades que ha marcado para la reconstrucción: el empleo, la digitalización, la sostenibilidad, la salud y la igualdad de oportunidades.

Tenemos casi cerrado el Plan Territorial de Recuperación de Bizkaia, que será parte del Plan Vasco de Recuperación, y que haremos llegar a las autoridades europeas por los cauces precisos para demostrar a las autoridades comunitarias que estos proyectos merecen ayuda, merecen ese empujón. No vamos a inventarnos nada porque tenemos el trabajo hecho y los proyectos en



Bizkaiko Ahaldu Nagusia
El Diputado General de Bizkaia

marcha. Solo necesitamos que nos ayuden a que no se paren. Bizkaia es un territorio tractor de Euskadi, del Estado y de Europa. Formamos parte de muchas cadenas productivas globales. Somos un motor económico y necesitamos ayuda para mantener ese motor en marcha por el bien de todos. Nuestro compromiso a cambio es contribuir a una Bizkaia, una Euskadi y una Europa mejor aceptando todos los controles, todas las condiciones. Y con la palabra de vasco de que haremos todo lo posible y lo mejor posible.

A situaciones excepcionales, medidas excepcionales. Si algo justifica que una administración, que un gobierno se endeude, es para afrontar situaciones como esta. La destrucción de actividad y de empleo demandan más que nunca fondos extraordinarios para ayudar a la recuperación. Europa ha cambiado de estrategia respecto a la crisis anterior, y de una austeridad mal entendida ha pasado a inyectar liquidez para impulsar proyectos de recuperación. Ahora toca que el Estado reconozca y traslade esta misma directriz.

La Diputación Foral de Bizkaia demanda más capacidad de déficit y deuda, y exigimos que la Comisión Mixta del Concerto Económico, de forma bilateral, acuerde una mayor capacidad de déficit y deuda para todas las instituciones vascas. Para todas. Nuestro tejido social y económico requiere la implicación de la Administración para salir de esta crisis. La Administración no puede dejar caer proyectos de recuperación y de transformación. No podemos ni debemos renunciar a un mañana mejor. Solo pedimos coherencia: en el Estado español existen cinco Haciendas, la estatal y las haciendas vascas: Bizkaia, Gipuzkoa, Araba y Nafarroa. De igual manera que al Gobierno de España se le han caído los ingresos, las haciendas vascas también hemos visto muy mermados nuestros ingresos. Ante esa caída de recursos, conocida, objetiva y comunicada, desde la Diputación de Bizkaia exigimos ya una mayor capacidad de déficit y deuda. Para ayudar a salir de esta crisis, para impulsar proyectos que ayuden a la recuperación, para que la rueda no se pare, porque si se para nos va a llevar años volver a ponerla en marcha.

Este es un momento excepcional por la parte del ingreso y también por la parte del gasto. Toca tener muy claro qué es prioritario y qué no. Prioritario es mantener unos servicios públicos de calidad y eficientes, y avanzar en dejar una Bizkaia mejor a las próximas generaciones. El resto deberá esperar a una coyuntura mejor, que llegará, y esto también hay que decirlo alto y claro. No hablo de recortes, sino de prioridades y de centrar todos los recursos disponibles al servicio de la recuperación. Quien no lo entienda deberá entenderlo, porque lo primero, lo urgente, lo único ahora, son la salud y la recuperación.

Confío en vosotros y vosotras, en jóvenes y mayores, en nuestros trabajadores y trabajadoras, y en los empresarios y empresarias. En todos y todas. Confío plenamente en Bizkaia y sé que juntos somos capaces de todo. Insisto: juntos. Juntos podemos conseguir todo lo que nos propongamos. Y solo juntos saldremos de esta. Tenemos un reto enorme lleno de incertidumbres: recuperar la normalidad. No sabemos qué va a pasar en un mes o en dos; así hay que asumirlo. Por tanto,



Bizkaiko Ahaldu Nagusia
El Diputado General de Bizkaia

mucha responsabilidad y prudencia. Lo que sí sabemos es que queremos recuperar nuestra salud, que queremos volver a vivir como vivíamos, que queremos recuperar nuestra calidad de vida, nuestra actividad económica, nuestra mejora del empleo. Y que queremos seguir trabajando por dejar una Bizkaia mejor a las siguientes generaciones. Juntos, con salud, muchísimo trabajo y un poco de ayuda lo conseguiremos. Bizkaia aurrera!